

UNIBERTSITATEA-ENPRESA-GIZARTEA IKERKETA PROIEKTUETARAKO 2019KO LAGUNTZA DEIALDIA ***Behin betiko erabakia***

Behin legezko epean eta eran jasotako dokumentuak berrikusirik eta kanpoko adituek egindako ebaluazio txostenak aztertuta, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (aurrerantzean IGBB) 2018ko azaroaren 7an hala proposatuta, eta eskari guztiek lortu duten puntuazioa nahikoa dela onartuak izateko ikusita, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak (aurrerantzean IAE)

ERABAKI DU errektoreordetzaren webgunean deialdiaren behin betiko erabakia argitaratzeko agintzea.

Ikertzaile nagusiek beraien eskaerari dagokion ebaluazio txostenaren 1., 2. eta 3. irizpideak eska ditzakete. Horretarako, mezu bat behar dute helbide honetara convocatorias.dgi@ehu.eus, gaian "UES 2019 deialdia" jarriz.

Eskatutako gutxiena baino kofinantzaketa gehiago duten proiektuek aurrekontua igotzea eska dezakete, gehienez hamar eguneko epean, baldin eta muga urteko 1800 euro ikertzaileko eta erakunde motaren arabera gutxieneko kofinantzaketa mantentzen badira. IAEk eman behar den dirua erabakiko du, kontuan hartuta proiektuen ebaluazioak eta aurrekontuan geratzen dena.

Finantzazioaren igoera bat eskatu nahi duten ikertzaile nagusiek mezu bat bidali beharko dute helbide honetara, convocatorias.dgi@ehu.eus, gaian "**UES 2019 deialdia laguntza igotzeko eskaria**". Kasuan kasu argituko zaie eskaria gauzatzeko modua.

Errekurtsoak:

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du, eta beraren kontra egiteko honako bide hauek erabili ahal izango dira, baina inola ere ez aldi berean:

1. Aldez aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean, erabakia argitara eman duen organoaren beraren aurrean.

Administrazio errekurtso hori jarriz gero, eta errekurtsoa jarri eta hilabeteko epean esanbidezko erabakirik jaso ezean, errekurtsoa ezetsi egin dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Errekurtsoa ezetsizat joa izan dela ulertuz gero, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsoa ezetsizat jo eta biharamunetik kontatzen hasita (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena, 116 eta 117. artikulua; 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duena, 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Bilboko administrazioarekiko auzien epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (administrazioarekiko auzietako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 8.3 eta 46. artikulua).

OHAR GARRANTZITSUA:

Eskatzen da honi buruzko kontsulta guztiak posta elektronikoaren bidez egin daitezela, helbide honetara convocatorias.dgi@ehu.eus, **mezuaren gaian hau jarri: "US deialdia".**

Leioan, 2019ko urriaren 24an.

**IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA
IKERKETAREN GESTIOKO ZUZENDARITZA
IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA**

IN NAN	KODEA	Puntuazioa 4. irizpidea	Puntuazioa IN edo Inkidea emakumea	Puntuazioa 1, 2, 3. irizpidea	PUNTUAZIOA GUZTIRA	EBAZPENA	EMANDAKO LAGUNTZA
30585956G	US19/02	20,00	0,00	78	98,00	Emandakoa	14400,00
29036733S	US19/13	20,00	2,00	71	93,00	Emandakoa	12750,00
44155871B	US19/05	20,00	2,00	64	86,00	Emandakoa	36000,00
10833688K	US19/03	2,43	0,00	71	73,43	Emandakoa	25200,00
16073656Z	US19/08	0,00	0,00	72	72,00	Emandakoa	28800,00
14252097D	US19/07	4,65	2,00	65	71,65	Emandakoa	6466,43
44157423E	US19/14	0,00	2,00	65	67,00	Emandakoa	14438,00
16279691S	US19/12	20,00	2,00	45	67,00	Emandakoa	6500,00
30588607X	US19/06	5,71	2,00	57	64,71	Emandakoa	1200,00
16263325W	US19/21	0,00	2,00	58	60,00	Emandakoa	16200,00
16571686W	US19/18	0,00	2,00	56	58,00	Emandakoa	9000,00
14958474X	US19/15	0,00	2,00	50	52,00	Emandakoa	7900,00
44132008E	US19/10	2,86	2,00	45	49,86	Emandakoa	4125,00

IN NAN	KODEA	Puntuazioa 4. irizpidea	Puntuazioa IN edo Inkidea emakumea	Puntuazioa 1, 2, 3. irizpidea	PUNTUAZIOA GUZTIRA	EBAZPENA	EMANDAKO LAGUNTZA
14943878L	US19/04	0,00	0,00	47	47,00	Emandakoa	14400,00
72486293E	US19/09	0,00	2,00	43,5	45,50	Emandakoa	18500,00
72473667T	US19/17	0,00	2,00	43	45,00	Emandakoa	18000,00
44132582K	US19/16	0,00	2,00	42	44,00	Emandakoa	7200,00
16032436X	US19/01	0,00	0,00	43	43,00	Emandakoa	12000,00